

2012-05-29ko UDALBATZA OHIZKOA

Iruran, bi mila eta hamabigarren urteko maiatzaren hogeita bederatzian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-BILDU udal-taldekoak: Gorka Murua Makuso, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainara Mugica Iruretagoyena, Tomas Etxeberria Sarasola, eta Josu Yurrita Loitegui

-EAJ/PNV udal-taldekoa: Javier Izaguirre Gomez.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2012-04-24; 2012-05-15).- 2012ko apirilaren 24ko ohiko saioaren eta 2012ko maiatzaren 15eko ezohiko saioaren akten zirriborroak aurkeztu dira, eta aho batez onartu dira.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2012ko 50. zenbakitik 75. zenbakira bitartekoak.

HIRUGARREN GAIA

ORTZADAR ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Ortzadar Elkarteak bere programak burutzeko diru-laguntza eskaera bideratu du. Elkarte hau adimen urriko pertsonen autonomia sustatzen eta eskubideak zaintzen aritzen da.

Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatiboak 200 euroko diru-laguntza ematea proposatu du 2012ko apirilaren 3an egindako bileran.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez erabaki du 200 euroko diru-laguntza ematea eta ordaintzea.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

LAUGARREN GAIA

ZAHARREN BILTOKIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Zaharren Biltokiko zuzendaritzak diru-laguntza eskaera egin du.

Gizarte zerbitzuetako batzordeak landutako diru-laguntzak emateko oinarriak kontuan hartuta, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatiboak aldeko proposamena egin du 2012ko maiatzaren 8ko bileran.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez erabaki du 1.500 euroko diru-laguntza ematea, baina ordaindu aurretik baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Elkartearen nortasunaren egiaztagiria aurkeztea.
- b) Diru-laguntzak ematea arautzen duen udal-ordenantzaren 3. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen direla adieraztea.
- c) Banketxe edo aurrezki kutxak emandako agiria aurkeztea, kontu korrontearen titularra bera dela egiaztatzen duena.
- d) Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela ziurtatzea.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

BOSGARREN GAIA

TOLOSALDEA GARATZENEN MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Tolosaldea Garatzenen mozio hau aurkeztu da:

“Tolosaldea Garatzenentzat 2011ko Espainiako aurrekontuetan izendatuta zegoen diru partida Espainiako Gobernuak ekar dezan.- Tolosaldea Garatzenek eskualdeko enpresak laguntzen eta berrikuntzako proiektuak sustatzen urteak daramatza. 2011. Urtean hitzartuta zegoen miloi bateko euroko partida izendua ez da iritsi eta, bere ordeztan, Espainiako Gobernuak Ikerkuntza, Berrikuntza eta Garapeneko Estatuko Idazkariaren faxa helarazi du. Diru-laguntza izendu hori ezinbestekoa da 2012an LEHIBERRI ZENTROAREN eraikitze fasea eta berarekin dakarren eta martxan dagoen berrikuntzako proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko. Partida izendu hori berehala jaso ezean, proiektuen bideragarritasun ekonomikoa kolokan geratuko da.

PROPOSAMENA:

1.- Irurako udalak Tolosaldea Garatzenek azken urteetan berrikuntzaren alde egindako lana goraipatzeen du eta bide horretan sakontzen jarrai dezala eskatzen dio.

2.- Irurako udalak Espainiako Gobernuari hitzartuta zeuden partida izendua Tolosaldea Garatzenen helaraztea eskatzen dio. Beraz, Espainiako Gobernuari bere kabuz eta inongo adostasunik gabe hartu berri duen erabakia atzera bota dezala eta izendatuta zegoen dirua lehen bai lehen ekar dezala eskatzen dio.”

Udalbatzak aho batez onartu du mozioa.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

SEIGARREN GAIA

IRURA ZERO ZABORREN ESKAERA.-

Irura Zero Zabor Taldeak proposamen hau aurkeztu du:

“Zero Zabor politikarako bidean, udalak 2012ko martxoan Atez Ateko hondakin bilketa sistema ezartzeko erabakia hartu zuen, egokia gure ustez, eta prozesu horretan ekainean egingo ditu herritarrekin lehenengo informazio bilerak.

Marko horretan, eta gure helburua, Udal Gobernuarekin elkarlanean, herritarren sentsibilizazio eta kontzientziazioa dela kontutan izanik, proposatzen dugu aste pare batez udaletxeko balkoitik zintzilika edukitzea Tolosa Zero Zaborrek prestatutako kartel artistikoa, material birziklatuekin egindakoa Zero Zabor mentalitatea zabaltzen joateko.

Gure eskaera kontutan hartuko duzuelakoan.”

Udalbatzak aho batez onartu du proposamena.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

Galdera eta eskarien atalaren aurretik, ondorengo gaia aztertu da, presazko egoera adierazi baitute, aho batez, batzarkideek, eta hauek udalbatzarreko partaideen zilegizko gehiengo osoaren aldeko botoa osatzen baitute:

ZAZPIGARREN GAIA

IRURAN MAIATZEAN KULTURA 2012 EKIMENAREN AURREKONTUA ETA EGITARAUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Aurten, maiatzeko asteburu guztiak kultura ekitaldiz beteko dituen programa bat osatu da eta “Iruran maiatzean kultura 2012” deitzea erabaki da. Bere egitura eta aurrekontua, 5.650 eurokoa, aurkeztu da.

Kultura eta euskara batzorde informatiboak aldeko proposamena egin du, 2012ko maiatzaren 22an egindako bileran.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez onartu du proposamena.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

Galdera eta eskarien atalaren aurretik, ondorengo gaia aztertu da, presazko egoera adierazi baitute, aho batez, batzarkideek, eta hauek

udalbatzarreko partaideen zilegizko gehiengo osoaren aldeko botoa osatzen baitute:

ZORTZIGARREN GAIA

GOIZA PASAREN TASAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIO.-

Proposatu da Goiza Pasaren Tasak aldatzea, zerbitzu honen gastuetara egokitzeko. Se propone la modificación de las tasas del servicio de Goiza Pasa, para acomodarlos al gasto del mismo.

Hori dela eta, Udalbatzako kideek aho batez erabaki dute honako hau: Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

1.- Goiza Pasaren tasa hauek onartzea: Aprobar las siguientes tasas de Goiza Pasa:

Aste bat/1 semana: 20 €

Bi aste/2 semanas: 37,40 €

Hiru aste/3 semanas: 52,50 €

Lau aste/4 semanas: 65 €

Bost aste/5 semanas: 75 €

Bigarren seme-alabengatik kostu osoari %10eko aplikatuko zaio. Al coste se le aplicará un 10% de descuento por la/el segunda/o hija/o,

Hirugarren seme-alabengatik kostu osoari %15eko aplikatu zaio. Al coste se le aplicará un 15% de descuento por la/el tercera/o hija/o,

Zaintza: Goizeko 09:00etatik 10:00etara, 2004tik 2009ra bitartean (biak barne) jaiotakoentzat zerbitzua egongo da. **Guarderia:** Habrá servicio de guarderia de 09:00 a 10:00 de la mañana para las/os nacidos/as entre 2004-2009 (ambos inclusive).

Seme-alaba batengatik 7€ Hor hija/o la semana costará
asteko, bi seme-alabengatik 12€ 7€, por dos hijas/os la semana será de
asteko eta hiru seme-alabengatik 15€ 12€ y por tres hijas/os 15€
asteko.

En el caso de apuntarse
Irurako bizilagunak ez direnak personas que no sean vecinos de
apuntatzen badira, bere tasak Irura sus tasas serán el doble de las
bikoitzak izango dira, eta ez dute reseñadas y no tendrán derecho a la
deskontuak aplikatzeko eskubiderik aplicación de descuentos.
izango.

Jendaurrean jarriko dira Los acuerdos adoptados, las
hartutako erabakiak, aldatutako ordenanzas modificadas y el
ordenantzak eta bideratutako expediente al efecto instruido se
espedienteak, Gipuzkoako Tokiko someten a información pública en
Ogasunak arautzen dituen uztailaren cumplimiento de lo dispuesto en el
5eko 11/1989 Arau Foraleko 16.1 artículo 16.1 de la Norma Foral
artikuluak agindu bezala; horrela, 11/1989, de 5 de julio, reguladora de
iragarkiak argitaratuko dira bide ofizial las Haciendas Locales de Gipuzkoa,
hauetan: udaletxeko iragarki taulan eta mediante publicación de anuncios
Gipuzkoako Lurralde Historikoko en este medio oficial y en el tablón
egunkaririk zabalduenetako batean. de edictos de la Casa Consistorial,
Hori dena arau hauen barruan. todo ello conforme a las siguientes
reglas:

- a) Non dauden agerian: Udal honetako idazkaritzan.
- a) Lugar donde se hallan de manifiesto: En la Secretaria de este Ayuntamiento.
- b) Aztertzeko eta erreklamatzeko epea: 30 egun baliiodun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo egun baliiodunetik hasita, eta bulegoko orduetan.
- b) Plazo para examinarlos y, en su caso, para formular las reclamaciones: 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en horario de oficina.
- c) Zein organoren aurrean aurkeztu errekurtsua: Osoko Bilkuran.
- c) Órgano ante el que se recurre:

Ayuntamiento Pleno

- | | |
|--|---|
| d) Erreklamazioa egin dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foraleko 17. artikuluan azaltzen direnak. | d) Legitimados para reclamar: Los que relaciona el artículo 17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio. |
| e) Non aurkeztu: Udaleko Sarrera Erregistro Orokorrean. Administrazio Prozedurako Legeak bere 66. artikuluan esaten duen tokietan ere bai. | e) Lugar de presentación: En el Registro General de Entrada del Ayuntamiento. Así como en los sitios que relaciona la Ley de Procedimiento en su art. 66. |

Informazio hau emateko epea amaitu ondoren erreklamaziorik edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik beharko.

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrán por definitivos los acuerdos adoptados, sin necesidad de emitir nuevos acuerdos.

BEDERATZIGARREN GAIA

GALDE ERREGUAK.-

Epe honetan Javier Izagirre zinegotziak galdetu du ea nola onartu ziren azken Osoko Bilkuran Trinkete tabernarako baldintza pleguak, eta ea aldaketarik izan ote zen. Aldaketa txiki batzuk izan direla erantzun diote, eta idazkariak behin betiko pleguak bidaliko dizkiola adierazi dio.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta, idazkari gisa, dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA